

5. KANALAK

Negozioak *komunikazio-kanalak*, *salmenta-kanalak* eta *banaketa-kanalak* erabiliko ditu bezeroengana iristeko eta esperientzia paregabea eskaintzeko. Kanal hauek estrategikoki diseinatu dira, gure zerbitzuak modu eraginkorrean eskaintzeko eta erabiltzaileekiko harremana indartzeko.

- **Komunikazio-Kanalak**

- **Mugikorretarako aplikazioa:** Gure aplikazioa, eskuragarri Google Play eta Apple Store plataformetan, zerbitzuak aurkezteko eta bezeroekin etengabeko harremana izateko tresna nagusia izango da. Bertan, erabiltzaileek bidai mota (nazionala edo nazioartekoa) eta zerbitzu-maila (Premium edo Estandar) hautatuko dituzte. Gainera, promozioak, eguneratzeak eta informazio guztia bertan jasoko dute.
- **Telefono bidezko komunikazioa:** Dei zuzenak egingo ditugu gure zerbitzuak azaltzeko eta eskaintzeko.
- **Publizitate digitala eta fisikoa:**
 - Web orrietan iragarkiak.
 - Panfletoak kaleetan eta herriko tabernetan banatzea. Panfletoetan enpresaren helburua eta eskaintzak azalduko dira.

- **Salmenta-Kanalak**

- **Mugikorretarako aplikazioa eta web orria:**
 - Bi plataformek aukera emango dute erreserbak egiteko, ordainketa-sistema segurua erabiltzeko, eta bakoitzak pilatutako puntuak ikusteko.
 - Aplikazioan, erabiltzaileek Premium (9,99 euro) edo Estandar zerbitzua hautatu ahal izango dute. Premium aukera lehentasunezko abantailak eskaintzen ditu, hala nola: ilarak saihesteko aukera, ordutegi malguagoak, eta data berezietan aukera gehiago.
- **Denda fisikoa:**
 - Alokaturako gure bulegoan, bezeroen galderei erantzuteko eta arreta eskaintzeko balioko du. Horrez gain, bulegoan deskontuak eta puntu-sistema kontsultatzeko aukera eskainiko da.

- **Banaketa-kanalak:**

- Banaketa-kanala zuzena izango da, hau da, bitartekaririk gabe gure zerbitzua bezeroei eskaintzen diegulako:
 - **Aplikazio eta web orria:** Gure zerbitzu eta produktuak eskaintzeko banaketa-kanal nagusiak izango dira. Plataforma horiek bidaien antolaketa digitalizatu eta erraztuko dute, bezeroek helmuga eta abantailak zuzenean aukeratzeko aukera izango baitute.
 - **Denda fisikoa:** Dendan, bezeroek zerbitzu guztiak kontratatu eta informazioa eskatu ahal izango dute.

